

Zerga-Gida

Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko zerga-araudiaren arabera

GARRANTZITSUA: ESKATU AHOLKUA ERRETIROA HARTU BAINO HILABETE BATZUK LEHENAGO, ZERGA-ONDORIO GUZTIAK EZAGUTZEKO

Zenbat ordainduko dut nire errenta-aitorpenean?

Kontuan izan behar da **GEROA beste ordaintzaile* bat dela**, eta, beraz:

***Ordaintzailea:** Lan Etekinak ordaintzen dituen edozein erakunde (Enpresa, INEM, Lanbide, Gizarte Segurantzza, BGAE...).

Ordaintzaile bakarra baduzu

Ordaintzaile bakarrarekin, nahitaezkoa da errenta-aitorpena egitea urteko lan-etekinak 20.000 €tik gorakoak badira.

Ordaintzaile bat baino gehiago baduzu

Ordaintzaile bat baino gehiagorekin, nahitaezkoa da errenta-aitorpena egitea urteko lan-etekinak 14.000 €tik gorakoak badira.

GEROA bezalako BGAE batetik jasotako zenbatekoak, Ogasunari begira, LAN-ETEKINTZAT HARTZEN DIRA, hau da, soldataren edo Gizarte Segurantzaren pentsioen tratamendu bera dute, eta diru-sarrera horien guztien baturari dagokion ehunekoan (tasa marjinala) ordaindu behar da dagokion PFEZa.

Nolanahi ere, kontuan hartu beharko da honako hau:

ORDAINKETA BAKARREAN KOBRATZEN BADUT

% 40a salbuetsia dago. Gainerako % 60a lan-etekintzat hartzen da, gainerako soldata edo pentsioekin batera. Adibidez:

	URTEKO GUZTIZKOA	ORDAINDU BEHARREKO ETEKINA
PENSIO PUBLIKOA	21.000 €	21.000 €
GEROATIK KOBRATUA	45.700 €	60% de 45.700 € = 27.420 €

LAN-ETEKINAK, GUZTIRA = 48.420 €

Lan-etekin hauek 3.000 €-ko hobaria dute. PFEZ*aren eskalan, 45.420 €rako tasa efektiboa % 24,58 dela ikusten dugu.

PFEZ-ean kontzeptu honengatik ordaindu beharreko zenbatekoa: 45.420 €-ren % 24,58 = 11.165,40 €
*2022ko PFEZ

HILEKO ERRENTA GISA KOBRATZEN BADUT

Ez dago zenbateko salbuetsirik. Adibidez:

	URTEKO GUZTIZKOA	ORDAINDU BEHARREKO ETEKINA
PENSIO PUBLIKOA	21.000 €	21.000 €
GEROATIK KOBRATUA	202,11 € hilean 19 urte eta 11 hilabetetan	202,11 € x 12 = 2.425 €

LAN-ETEKINAK, GUZTIRA: 23.425 €

Lan-etekin hauek 3.000 €-ko hobaria dute. PFEZ*aren eskalan, 20.425 €rako tasa efektiboa % 15,47 dela ikusten dugu.

PFEZ-ean kontzeptu honengatik ordaindu beharreko zenbatekoa: 20.425 €-ren % 15,47= 3.159,09 €
*2022ko PFEZ

Gogorarazi beharra dago PFEZ-a progresiboa dela, hau da, tasa marjinal hori handiagoa dela guztizko zenbatekoa handiagoa den heinean.

Beste BGAE batzuk dituzu? Ondokoa jakin beharra duzu

GEROAN ordainketa bakarrean kobratzea badagokizu, kapitala beste BGAE batera intsuldatu ahal izango duzu doan.

Kobrantsa horien arrazoia bera bada

Adibidez: erretiroa, ezintasuna, erreskatea eta abar. % 40ko salbuespena lehen urtean baino ez da aplikatuko. Kasu horretan, **BGAE guztiak urte berean kobratzea komeni da.**

Kobrantsa horien arrazoiak desberdinak badira

Adibidez: beste planean erreskatea jasotzeko eskubidea eta GEROAN erretiroa jasotzeko eskubidea duzunean. % 40ko salbuespena arrazoi horietako bakoitzean aplikatuko da. Kasu horretan, **komenigarriagoa da erreskatearen BGAE urte batean erreskatatzea eta erretiroaren BGAE beste urte ezberdin batean kobratzea.** Era horretan, % 40ko salbuespenaren onura izango duzu BGAE bakoitzean, eta bi aldiz kobratzean, tasa marjinal txikiagoa aplikatuko da.

Geroa Pentsioak Enpleguko BGAetik prestazio bat jaso baduzu, ondoren **ERRENTA AITORPENERAKO INFORMAZIOA** zehazten dugu, Euskadiko araudi fiskala jarraituz.

Erretiroa:

GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAetik erretiro prestazio bat jaso baduzu, zenbatekoa aitortu beharko duzu **Lan Etekin bezala, beti ere, aitorpena egin beharra edo egin nahi baduzu**. Lehenengo ekarpenetik bi urte baino gehiago pasa badira eta erretiroagatik kapital eran jaso duzun lehenengo prestazioa¹ baldin bada, errenta aitorpenean prestazioaren %60a² barneratu beharko duzu, izan ere, gainontzeko %40a saritua dago. Gainontzeko kasuetan edo errenta moduan kobratu baduzu, honen %100a barneratu beharko duzu.

Ezgaitasuna (Iraunkor Erabatekoa, Absolutua, edo Elbarritasun Handia):

Garrantzitsua da jakitea, Gizarte Segurantzatik jasotzen diren Erabateko Ezgaitasun Iraunkor kualifikatuagatik (%75) pentsioa, Ezgaitasun Iraunkor Absolutuagatik pentsioa eta Elbarritasun Handiagatik pentsioa, Errenta aitorpenean salbuetsirik daudela. Hala ere, GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAetik jasotzen duzun prestazioa zerga-ordainketari lotuta dago.

GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAetik ezgaitasun prestazio bat jaso baduzu, zenbatekoa aitortu beharko duzu **Lan Etekin bezala, beti ere, aitorpena egin beharra edo egin nahi baduzu**. Ezgaitasunagatik kapital eran jaso duzun lehenengo prestazioa¹ baldin bada, errenta aitorpenean prestazioaren %60a² barneratu beharko duzu, izan ere, gainontzeko %40a saritua dago. Gainontzeko kasuetan edo errenta moduan kobratu baduzu, honen %100a barneratu beharko duzu.

Heriotza:

GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAetik langile baten heriotzagatik prestazio baten onuraduna izan bazara, jaso duzun zenbatekoa aitortu beharko duzu **Lan Etekin bezala, beti ere, aitorpena egin beharra edo egin nahi baduzu**. Lehenengo ekarpenetik bi urte baino gehiago pasa badira eta heriotzagatik kapital eran jaso duzun lehenengo prestazioa¹ baldin bada, errenta aitorpenean prestazioaren %60a² barneratu beharko duzu, izan ere, gainontzeko %40a saritua dago. Gainontzeko kasuetan edo errenta moduan kobratu baduzu, honen %100a barneratu beharko duzu.

GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAeko prestazioek **atxikipena barneraturik dute** eta izanez gero, bidali dizugun agirian jakinarazten dizugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtean argitaraturiko atxikipen taulak aplikatu zaizkio (Seme-alabarik kargu ez dutenena) behin hobariaren zenbatekoa kendu ondoren. Hobaria aplikatzeko orduan, GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAek kapital eran jaso duzun prestazioa kontingentzia horregatik jaso duzun lehenengo prestazioa¹ dela suposatzen du.

Idatzi honen bidez GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAeri lotutako zerga-alderdiak erraztu dizkizugulakoan, adeitasunez,

GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAE

¹ Lehenengo prestaziotzat, zerga-aldi berean eta kapital eran kontingentzia bakoitzagatik (erretiroa, ezgaitasuna edo heriotza) jasotako BGAE guztien batura ulertzen da.

² %60a barneratzen da 300.000€/urteko zenbateko arte, gainontzekoa %100ean barneratzen da.

OHARRA: Idatzi honek helburu informatzailea du soilik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arautegian oinarriturik dago.